

Bizkaiko aldaketa

Pena da Espainian eta Euskal Herrian per-
tzezioa oso desberdina izatea. PSE-EE
eta, batez ere, ezker abertzalea saritu
dituzte hauteskundeotan, eta sumatu
dute etxean nork jarri duen ilusio gutxien
prozesuan. Oso ondo asmatu dute irakurtzen
herritarrek horren emaitza kaskarrak eman
dituen prozesua. 2008ko martxora bitartean
hobeto eta bizkorrago egin beharko dute,
Zapaterok Espainian zerbait saldu gura badu.

Estrasburgon ei dago itxaropena —eta alder-
dien legea atzera botaz gero, berriz hauteskun-
deak?—: Espainian erraz sal dezake ezker aber-
tzalea legeztatu beharra dagoela, berak
nahi ez arren, Europa dixit. Aznarren
legea da, gainera. Hamar hilabete
urrats sendoak emateko, zalantzan ibili
barik. Zertan dabilen ondo dakien pre-
sidentea ikusi behar dute espainiarrek,
gerrara eraman zituztenen aldean
bakea dakarkiena.

Argi geratu da gizartearen zati handi
batek bat egiten duela ezker abertzale-
aren analisiekin, jardunarekin beti
ados egon gabe ere. Barajasko atenta-
tuarekin urte eta erdiko ekimen guztiak
estali gura izan dituztenen aldean, sari-
tu dituzte ezker abertzalearen ahalegin
politikoak eta jasandako errepresioa,
Otegiren espetxeratzetik zerrendak legez
kanpo uzteraino. Errepresioari zelan erantzun
ere pista batzuk ematen dituzte emaitzek.



INIGO AZKONA

Zenbakiei begira, aldaketa gutxien Biz-
kaian sumatu dute askok. Eta hemen egon da,
nik uste, astindurik handiena. Ekialdean
salbu, noski, baina premisa bestelakoa zen:
UPN bota behar zen. Udalerrietan Nafarroa-
ko Parlamentuan baino askoz boto gehiago
dauzka ezker abertzaleak.

Bizkaian, jeltzaleek nahieran jardun duten
herrietan batez ere, kolokan jarri da erabateko
nagusitasun hori. Bilbo salbatu dute: Iñaki
Azkunaren populismo eskuindarrak boto ez
abertzale asko ditu, 2008an ziurrenik alderdi
espainolistak bozkatzeko dituztenak.

Bizkaiko hamabost udalerrri ingu-
rutan da ezker abertzalea nagusi, eta
beste pare baten ere erraz dute EAJ
kentzen, zuzendaritzen arteko dis-
tantiak laburtu eta Aralarrekin bat
eginik.

Poztu nau, behingoagatik, *Berrian*
horren zorrotz jarduten duen Fredi
Pairen iragarpenak kale egin izanak:
Prestigeren ostean Galizian PPri
legez, askok geneukan susmoa EAJri
triskantzak merke irtengo ote zitzaiz-
kion. Bada, eskualdean jeltzaleeneta-
koan, Durangaldean lurrikara izan
da: Elorrio, Abadiño, Garai, Izurtza
eta Atxondo galdu ditu, eta eutsi die-
ten herrietan ere beherakada nabarmena izan
dute. Kasualitatea ote Abiadura Handiko
Trena Anboto eta Udalatx artetik pasatzea? ■

«
Argi geratu da gizartearen zati
handi batek bat egiten duela
ezker abertzalearen analisiekin,
jardunarekin beti ados
egon gabe ere
»

HIRUKO TXIKIAN Joxemari Ostolaza



Zait hauteskunde bidegabe haue-
tako biharamunean bestelako gaie-
tan murgiltzea. Ezker abertzaleari
egiten zaion jazarpenaren aurrean

beti dut dena hankaz gora ezarriko dutenaren
esperantza. Berdintasuna oinarri beharko lukeena, demo-
kraziaren itxura nimitzina behar lukeena bidegabeki
saboteatzen denaren aurrean, solidaritatezko erantzuna
izan denaren esperantzaz egoten naiz adi. Baldintza
horietan parte hartzeak min ematen dit. Ez zait eraman
erraza egiten beste alderdi guztien jarrera sabelkoia, arerioa
garaitzeko erakusten duten azerikeria. Eta publikoki
horren aurrean beren desadostasun formala adierazten

Zaila

duenak ditut gorrotatuenak PP eta PSOE
kazikeek ez baitute horren beharrik. Gaur
goizean, ogibidean, enpresa bateko langile bat
topatu dut, bere herriko festetako alardearen
kantineraren hautaketaz arduratuta, boto erosketa bat sala-
tzen ari zen. Auzoko aberastu baten alaba hautatu omen
dute modu horretan. Ezker abertzaleari buruz galdetuta,
“horiek erradikalak dira” batekin erantzun dit PSOEek eta
PPk gehiengoa duten eremuan. Auzoko konpainian desfi-
latuko du aberastuaren alaba aurrean duela abaniko eta
guzti. Alardeak izugarri emozionatzen du. Alardeak, aldiz,
erradikalak ez ditu hain erraz berotzen eta ez dute kantine-
ratzat inongo aberastuaren alabarik onartuko. ■